



INAKI ARRATIBEL ▶ KIROL MEDIKUA

## «Beldur pertsonalengatik utzi nuen txirrindularitza, batez ere»

**TOLOSA** ▶ Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresuan hartuko du parte kirol mediku tolosarrak

**XEDEA** ▶ «Kirola eta jarduera fisikora jendea nola erakarri lantzen saiatuko gara» ▶ 2-3

TOLOSA ▶

## Gazteentzat ikastaroak antolatu dituzte

Bost ikastaro jarriko ditu abian Gazteria sailak «prezio bajaran» ▶ 4

## Herrialde txiroak laguntzeko Gabonetako postalak atera dituzte

**IBARRA** ▶ Ibarrik misio taldeak Gabonetako sei postal jarri ditu salgai lau herrialdeetan dituen proiektuak bultzatu ahal izateko ▶ 6



Elbarrenako errepidea. HITZA


ZIZURKIL ▶

## Aldundiak neurriak hartuko ditu Elbarrenako errepidean

Zebrabide bat semaforoarekin jarriko du, Udalaren eskaria aintzat hartu ondoren ▶ 7

TOLOSA ▶

## 70 lagun inguruk izan dituzte gogoan Joxi eta Joxean ▶ 4



IBARRATIK MISIO TALDEA



IÑAKI ARRATIBEL ▶ KIROL MEDIKUA

# «Beldur pertsonalengatik utzi nuen batez ere txirrindularitzaren mundua»

Iñaki Arratibel kirol mediku tolosarrak bihartik larunbatera Tolosan izango den Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresuan hartuko du parte

AINARA ARRATIBEL (Berria)

Tolosako bihotzean egin dugu hitzordua Iñaki Arratibel (Tolosa, 1958) sendagilearekin: Triangulo plazan. Tolosar peto-pettoa dugu Arratibel: inauteri zalea, kalea gustuko duena eta, orain gutxitik, Tolosa Futbol taldeko presidentea. Saltsa guztien perrexila da. Gaztetatik hala izan da. Donostiako Medikuntza Unitatea bultzatu zuen taldeko kide izan zen, eta baita Tolosa inguruan kirol medikuntzako kontsulta bat zabaldu zuen aurrenekoetakoa ere. Kontsultan askotariko kirolariek lan egiteko aukera izan du. Txirrindularitza, eskubalo eta arraun taldeetako mediku ere ibili da. Bestalde, bihartik larunbatera Tolosan izango den Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresuan hartuko du parte.

**Kirol sendagilea, irakaslea, Tolosa Futbol Taldeko presidentea, udan Euskadi Irratiko solaskidea... Noiz hartzen duzu atsedean?**

Irakasle moduan eszedentzian nago; baina, egia esan, ez dut aspertzeko denborarik. Geldirik ez dakidala egoten esaten dit beti emazteak. Jai eduki arren, gauzak egiten aritza gustatzen zait: irakurri, kirol ekitaldiak ikusi... Familiako gainerako senideen antzera,

nahiko saltseroa naiz. Ez naiz egongelako sofán eserita, telebista ikusten, egoten den horietakoa. Tolosar gehienoi gertatzen zaigu hori. Asko gustatzen zaigu kalean ibiltzea. Urte osoan antolatzen diren festak eta azokak ikustea besterik ez dago.

**Nolakoa da Iñaki Arratibel?**

Burugogorra naizela esaten dute. Alemanian igarotako urteak izango dira... (kar-kar-kar). Bestalde, ez naiz oso gau-txoria, baina asko gustatzen zait lagunekin afariak egitea. Hori bai, inauterietan nahiko txoriburua naiz. Asko gustatzen zaizkit inauteriak. Nire ikasle ohi asko harritu egiten ziren hori esaten nirenean, eskolak ematen oso serioa eta zorrotza bainintzen.

**Askotan esaten da kirol medikuak goi mailako kirolari frustratuak direla. Zure kasuan ere hala al da?**

Ez. Kirolari bat frustratua dago bere mugak ezagutzen ez di-

tuenean. Nik, ordea, garbi izan ditut beti. 29 urtera arte Tolosako eskubalo taldean aritu nintzen jokatzeko. Gure ahaleginean, oso talde indartsua osatu genuen. Bigarren mailan jokatzen aritu ginen. Gehienak ikasten edo lanean genbiltzan, eta ez genuen gorago iritsi nahi. Ez genuen taldea profesionalizatu nahi.

**Noiz erabaki zenuen kirol medikua izatea?**

Oso txikitán. Beti gustatu izan zaizkit bai medikuntza eta bai kirola. Ondo pentsatuta, nahiko erabaki harrigarria izan zen. Orduan kirol medikuntza ez zegoen gaur egun bezain definitua. Espezialitate hori egin ahal izateko atzerrira joan behar zen.

**Alaba medikuntza ikasten hasi da orain. Zein aholku eman diozu?**

Ikasteko, baina baita gozatzeko ere. Beste gauza asko egiteko urteak izan behar dute, nire ustez, unibertsitateko urteak.

Urte horiek aprobetxatzen ez badira, trenak alde egiten du. Ikasketak amaitzean beste bizi-modu bat hasten duzu. Orduan ere ondo biziko zara, baina gozatzeko urteak unibertsitatekoak dira.

**Zer moduz joan zitzaizkizun zuri medikuntza ikasketak?**

Oso ondo. Urte haiek zoragarriak izan ziren. Oso gaztea nintzela atera nintzen etxetik: 17 urterekin. Ikasketak Valladoliden (Espainia) egin nituen. Hotz handia pasatu genuen, baina orduko parrandak ahaztezinak dira. Lagun asko egin nituen. Egia da, halere, une gorrak izan zirela. 45 lagun inguruko talde zoro samar bat osatu, eta Donostian medikuntza unitate bat sortzea bultzatu genuen. Hilabete haiek ez ziren xamurrak izan. Zorionez, gu izan ginen unitate horretako lehen promozioa. Unitateak 25 urte bete ditu aurten.

**Eta BAME nola joan zen?**

Medikuntzako seigarren urtea

amaitu, eta berehala azterketa izan zen. Ez nuen lanpostua lortu, baina kirol medikuntza egiteko atzerrira joan behar nuen. Beraz, ez nintzen asko kezkatu emaitzarekin.

**Hasieratik garbi al zenuen Alemaniara joango zirela?**

Ez. Hasieran Erresuma Batua joateko asmoa nuen, baina txirrindulari ohi baten medikuak Holandara joatea aholkatu zidan. Ustekabeko batzuen ondoren, Alemaniara joan nintzen. Freubergera. Han asko ikasi nuen, batik batik kirol fisiologian. Dena den, hasiera nahiko gogorra izan zen. Alemaniarrak oso itxiak dira, eta ez zen erraza izan lagunak egitea. Dena den, ni joan eta bospasei hilabetera emaztea nirekin etorri zen. Pixkanaka lagunak egiten hasi ginen. Alemanian igarotako bigarren urtea zoragarria izan zen.

**Gurasoek nola hartu zuten zuri Alemaniara joatea?**

Ondo. Gu bost anai-arreba gara



## Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udaltzatzen 2006ko urriaren 16an egin zuten Osoko Bilkuran, Ordenantza Fiskalak eta beren eranskinak aldatzea erabaki zuten 2007. urteko urtarilaren 1etik aurrera.

Hartutako erabakiak eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauren 16. artikulua agindu bezala.

- Non dauden agerian: Udal honetako Kontuhartzalaitzan.
- Aztertze eta, hala badagokio, errekamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo lanegunetik hasita, bulegoko orduetan.
- Erreklamatzeko legitimitatuta daudenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikulua aipatzen dituenak.
- Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean.
- Erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez bada aipatutako epearen barnean, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira, eta ez da beste bakarrik behar.

Tolosa, 2006ko urriaren 16ean

ALKATEA

—lau mutil eta neska bat— eta zaharrena izan ezik, gainerakoak kanpoan ibili gara ikasten eta lanean. Beraz, gurasoak ohituta zeuden. Askotan, haiek bultzatuta joan ginen. Alde horretatik asko diegu eskertzeko, izugarri lagundu baitziguten.

**Alemanez dezente ondo moldatzen omen zara.**

Bai, nahiko ondo. Phonak taldean ibili naizenean asko ikasi dut, suitzarrak izan arren, haiekin alemanez hitz egiten bainuen. Orain, noizbehinka erabiltzen dut.

**Alemaniatik itzultzea gogorra izan al zen?**

Pixka bat bai. Dena den, itzultzeko gogoz nengoen. Eusko Jauriaritzako beka bat nuen, eta nire asmoa han ikasitakoa hemen erakustea zen. Beraz, urtebete gehiago geratzea proposatu zidaten arren, itzultzea erabaki nuen.

**Itzultzean, kontsulta jarri ze-nuen.**

Pixkanaka joan zen kontua izan zen. Horretan ere zorte izugarria izan nuen. Abraham Olano berehala etorri zen kontsultara, eta handik hilabete gutxira elkarrekin hasi ginen lanean. Abraham pistako selekzioan zebilen, eta burumakur zegoen. Haren asmoa errepidean hastea zen. Pixkanaka emaitzak lortzen hasi zen, eta horri esker jende gehiago hasi zen etorritzen kontsultara. Gainera, Kolonbian irabazitako Munduko Txapelketan nire izena aipatu zuen. Salto kualitatibo handia izan zen hura niretzat.

**Eta noiz hasi zinen txirrindulari taldeekin lanean?**

Sabino Padilla Athleticera joan zenean. Haren ordez hasi nintzen lanean Baneston.

**Zein balorazio egiten duzu kirol txirrindularitza igarotako urteez?**

Orokorrean, ona. Egia esan, ni nahiko baikorra izan naiz beti. Halako mundu batean, egoera ahal duzun neurrian kontrolatzen saiatu behar duzu. Egoera horiek ez badituzu kontrolatzen, eta zure lanean nahiz eguneroko bizitzan eragina badute, onena uztea da.

**Horregatik erabaki al zenuen txirrindularitza mundua uztea?**

Bai, nituen beldur pertsonalengatik. Ez nuen nahi zerikusia ez neukan gauza batean sartuta egotea. Nik garbi nuen garbitasun osoz ari nintzela lanean, eta lasai nengoen. Baina Hamilton eta Santi Perezen positiboa ikusi, eta UCiK babesik ematen ez zidala ikustean uztea erabaki nuen.

**Hasi zinenean espero al zenuen txirrindularitza egungo egoerara iritsiko zela?**

Zerbait arraroa ikusten nuen,



HITZA

baina ni nahiko baikorra izan naiz beti, eta ez nuen espero halako egoera batera iritsiko zenik.

**Txirrindularitza dopinaren pagaburua dela esan daiteke?**

Bai, neurri batean bai. Baina, horretan ere, errua txirrindularitza munduarena da. Beste kirolekin gauzak frogatu arte ez da neurririk hartzen. Baina, txirrindularitza, egunkari batean agertzen dena oinarri hartuta erabakitzen da zeinek korritu dezakeen eta zeinek ez. Puerto operazioan gertatutakoa ikustea besterik ez dago. Horren aurrean inork ez du ezer egiten.

**Zer esango zenieke makarriekin soilik hiru asteko lasterketak korritu ezin daitezkeela diotenei?**

Egia dela. Horrek ez du esan nahi, halere, txirrindulariak dopatzen direnik. Onartuta dauden botika asko daude nekea saihesten eta errekupeazioa hobetzen laguntzen dutenak. **Lasterketa hain gogorrak eta luzeak ez antolatzeak konponduko al luke dopinaren arazoa?**

Nik zalantzak ditut horretan, etapa laburrak askoz azkarragoak baitira. Beraz, ez dakit lasterketa motzagoak egiteak arazoa konponduko lukeen.

**Kontrolak daudela jakinda, zergatik erabakitzen du txirrindulariek dopatzea?**

Ez dakit. Niri gehien harritzen nauena da ez direla kontrolatzen taldeari egiten dioten minaz. Orain arte zigorra txirrindularientzat zen, baina, orain, errugabe askok jasan dituzte horren ondorioak: mekanikariak, masajistek... Phonak, adibidez, 31 langile joan dira kalera, dopinarekin izan dituz-

**DI-DA BATEAN >**

**Abraham Olano:** Lagun handi bat eta oso pertsona langilea.

**Behobia-Donostia:** Kirolaren masifikazio arriskutsua. **Kirol medikuntza:** Nire bizia. **Usabal kiroldegia:** Itxaropena.

**Inauteriak:** Urteko arazoez ahazteko egunak.

ten arazoengatik taldea desagertu egin baita. Beste enpresa batean hori gertatuko balitz, sekulako iskanbila sortuko litzateke.

**Bihartik larunbatera Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresua burutuko da. Zuk ere hartuko duzu parte bertan. Zein helburu du ekimen honek?**

Kirola eta osasunaren harreman guztiak jorratu nahi ditugu, eta zati handi batean jarduera fisikora jendea nola erakarri lantzen saiatuko gara.

**Larunbatean, jarduera fisikoa eta dopatzeko substantzien erabileraz hitz egingo duzu.**

Kirolaren eta osasunaren binomioaz jardungo naiz. Batetik, kirola osasuna hobetzeko bide bezala hartzen dutenak daude, eta bestetik, lehia moduan hartu eta dopatzen direnak; kontrolrik gabe egiten dute kirola, bere izaeraren aurka, alegia.

**Orain Zarauzko arraun taldearen medikua zara. Zer moduz?**

Oso ondo. Arraun mundua asko ezagutzen dut. Duela 14 urte hasi nintzen Getariako traineruarekin lanean. Egia esan, denboraldia primeran joan da. Urte askotako lanaren emaitzak jaso dituzte.

**Eta Astillerorekin gertatutakoa nola ikusten duzu?**

Ematen du erabaki batzuk hartzea politikoki oso zaila dela. Arraunlariei edo klubei ardura hori leporatzea ez da bidezkoa. Gauzak behar diren lekuan erabaki behar dira. Beraz, haiek jakingo dute zergatik sartu diren horretan. Egia da, halere, Kontxako sailkapen egunean gertatutakoak kalte handia egin diola arraunari.

**Goi mailakoak ez diren kirolariek ere ibiltzen zara. Hori aberasgarriagoa al da?**

Bai. Baina horiek ere helburu edo marka bat dute beti buruan. Hori obsesio bihurtzen denean, kaltegarria da. Behobiaren ostean, osasun arazoak dituzten korrikalari asko etortzen dira kontsultara. Egiten dituzten gehiegikeriengatik gertatzen da hori.

**Maila horietan ba al da dopina?**

Bai. Jendea denetarako prest dago. Helburua lortzeko edo zer gauza egiten dute. «Eman zer bait», esaten didate askok. Baina, badakite nik ez diedala ezer emango.

**Tolosako Futbol taldeko presidentea zara. Nola sortu zitzaizun aukera hori?**

Betidanik ibili naiz klubean. Sei urte nituenean egin ninduen aitak klubeiko bazkide. Orain arte zegoenak utzi egin zuen zinegotzi zegoelako, eta ez zen inor aurkezten. Nire anaiek eta lagunak animatu

**LANGILEA**

«Ez naiz egongelan eserita, telebista ikusten egoten den horietakoa; gauzak egitea gustatzen zait»

**TXIRRINDULARITZA**

«Ez dut uste txirrindularitza etapa motzagoak izateak dopinaren arazoa konponduko duenik»

**BEHEKO MAILAK**

«Lan handia egin beharra dago beheko mailetak kirol taldeentzat dirua lortzeko»

egin ninduten, eta sartu egin nintzen.

**Lan gogorra al da?**

Ez asko. Gure taldeak duen egiturak ahalbidetzen du hain zaila ez izatea. Izan ere, talde bakoitzak bere arduraduna du. Nik talde guztien arteko koordinazioa daramat, eta baita erakundeekin dugun harremana ere. Nire helburu nagusia eskubaloit taldea bultzatzea da. Horretarako, nirekin batera jokatu zuen lagun bati eskatutia nion laguntza.

**Zaila al da beheko taldeentzat dirua lortzea?**

Bai. Lan asko egin behar da. Goi mailako taldeei ematen zaie laguntza, eta behekoak apurrekin geratzen gara. Denei eman beharko litzazieke laguntza berdina, eguneroko egiten den lana baloratzen.

**Hedabideetan maiz ikusten zaitugu. Gustura al zabilzta solaskide moduan?**

Hedabideetan kolaboratzea, bai, asko gustatzen zait, baina albiste izatea ez. Irratikoa naturaltasunez hartzen dut, eta nire iritzi xumeak plazaratzen saiatzen naiz. Idaztea ere atsegin dut.

**Jose Luis Korta izan duzu solaskide. Zaila al da harekin eztabaidatzea?**

Ez [barrez]. Ni ere hasi naiz hari kontra egiten (kar, kar, kar). Oso pertsona jatorra da, eta izugarri bizi du kirola. Halakoa ere behar dira.

**MENDI-ALDE**

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak... *Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

GIZARTEA ▶

# Hogeita hiru urte eta gero ere, Joxi eta Joxean gogoan

Herenegun, 70 lagun inguru bildu ziren Benta-Haundin, Lasa eta Zabala tolosarrei omenaldia egiteko



Herenegun, Benta-Haundin eginiko omenaldian, lore eskaintza egin zuten Joxi eta Joxeanen amek. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Herenegun bete ziren 23 urte, Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosar gazteak GALEn eskuetan bahitu, torturatu eta hil zituztela. Hori dela eta, urtero bezala, 70 lagun inguru bildu ziren herenegun Benta-haundin, bi gazte hauen oroimenezko monolitoaren aurrean, omenaldia agiteko.

Ekitaldiari txalaparta eta adar soinuekin eman zioten hasiera. Jarraian tolosar batek hitz egin zuen, orain dela 23 urte gertatutakoa oroitzuz eta hara hurbildutakoei eskerrak luzatuz. Ondoren, aureskua dantzatu zuen dantzariak, eta Joxi eta Joxeanen amek lore eskaintza egin zuten. «Une hun-kigarri» horretan, txalo zaparrada batekin erantzun zuten bertaritutakoei.



Ekitaldiari txalaparta eta adar soinuekin eman zioten hasiera. E. EZEIZA

Omenaldiari amaiera emateko, egungo bake prozesuaren eta euskal gatazkaren inguruan mintzatu zen herritar bat. Gogoan izan zituen ere, gataz-

karen ondorioz erori diren beste hainbat borrokalari. Eta ohitura denez, bukatzeko, *Eusko Gudariak* abestu zuten, han bildu zirenek.

KULTURA ▶



Iaz ere munduko sukaldaritzari buruzko ikastaroa izan zen. HITZA

## Gazteentzako hainbat ikastaro «prezio bajaran»

Tolosako Gazteria sailak, hauen eskarien arabera bost ikastaro antolatu ditu

### E. EZEIZA

Gazteria sailak, Tolosaldeko gazteen beharrak eta eska-riak erantzuteko asmoz, hainbat ikastaro antolatu ditu datorren hilabeteetarako. Munduko sukaldaritzako kurtsoa ezezik gainontzeko guztiak berriak dira: boluntariotzako; salsa, merenge eta batxadakoa; txalapartakoa eta batxadakoa. Gazteria saileko arduradunen esanetan, «oso zaila da horrelako ikastaroak, hain prezio merkean aurkitzea».

Kurtso guztiak euskaraz izango dira, munduko sukaldaritzarena izan ezik. hau, gatzelaniaz emango baitutate. Bestalde, denetan ere, izena ematen duen jende kopuruaren arabera, adina kontutan hartuz taldeak egingo dira. Izena emateko epea hil honen bukeran amaituko da.

Boluntariotzako oinarritzako ikastaroa 18 urtetik gorakoei zuzendua dago. Hau dohain izango da, azaroko lau larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara. Landuko diren edukiak, besteak beste, gaur eguneko errealitatearen az-

terketa, boluntarioaren definizioa...

Areto dantzen ikastaroak berriz, hiru hilabete iraungo ditu. Eskolak 13 urtetik gorakoentzat daude zuzenduta, eta arratsaldean izango dira, 15:00etatik 16:30era. Kurtsoak bost euro balioko du.

Munduko sukaldaritzako jardunaldiak ere hiru hilabete zehar gauzatuko dira. Hau, Ereite elkartearekin elkarlanean antolatutako ikastaldia da eta iaz arrakasta handia izan zuen. Eskolak, herrialde ezberdinetatik etorritako etorkinek ematen dituzte, areto dantzakoak bezala. 18 urtetik gorakoentzat izango dira klaseak, eta ostegun iluntzetan emango dituzte. kurtsoa 20 euro kostako da.

Txalaparta ikastaroak hiru hilabete zehar astearte arratsaldeetan gauzatuko dira. Bertan, 13 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte, 10 euroren truke.

Azken ikastaroa, Batukadakoa izango da. Hau, azaro eta abenduan izango da, asteazken ikuntzeetan. Kostua eta adina berriz, txalapartakoa- ren berdina izango da.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Galdera bat erantzun  
bihurtzeko da.  
Mugikor hobea izateko da.  
Zuntz-Optikoa  
zure etxera eramateko da.  
Internetera konektatzeko da.  
70 telebista-kanal baino  
gehiago ikusteko da.  
Mugikorrean saldirik gabe  
geratzen zarenerako da.  
Telefonoa, telebista digitala  
eta Internet oporrelara  
eramateko da.  
Nahi duzunean  
estrenaldiko film bat ikusteko da.

Nahi duzun guztirako, hauxe da zure zenbakia.

# 1717

Eskaintza bat  
interesatzen zaizunerako da.  
Lehen mailako partidak  
lehen leerotik ikusteko da.  
Internetez gehiago  
gozatzeko da.  
Zure telebista digitala  
handiago egiteko da.  
Munduko edozein tokitara  
deitzeko eta munduko  
edozein tokitatik  
deiak jasotzeko da.  
Astehenerako da.  
Astearteetarako da.  
Asteazkenetarako da.  
Ostegunetarako da.  
Ostiraletarako da.  
Larunbatetarako da.  
Etzeko telefonorako da.  
Mugikorrerako da.  
Telebistarako da.  
Interneterako da.

Zuretzat da.



IBARRA ▶ GIZARTEA

# Laguntzeko postalak Gabonetarako

Ibarratik misio taldeak sei postal jarri ditu salgai proiektuak bultzatzeko

MADDI SOROA

Ibarratik misio taldeak 1997tik dihardu mota ezberdinetako ekintzak burutzen. Helburu nagusia, Hirugarren Munduko lau herrialdeetan martxan dituzten proiektuak bultzatzeko diru sarrerak lortzea izan da beti.

Orain, Gabonetako postalak saltzeko gogoz dator elkarteak. Guztira 13 x 15 zentimetroko neurria duten 6 postal ezberdin egin dituzte. Horietatik hiru, taldearekin kolaboratzen duten hiru artistek margoturi-koak dira, beste bi elkarteak proiektuak garatzen dituen herrialdeetako haurren argazkiak dira eta seigarrena, Indian besoetan hartutako haur batek eginiko marrazkia da.

Postal bakoitzak eta gutunazalak euro bakar bat balio du. Gainera, nahi izanez gero, postalak zorion testuekin pertsonalizatu daitezke, enpresen kasuan, adibidez.

Postalak erosi nahi dituenak bi bide hauetako bat erabili dezake. Batetik, telefonoz deitu dezake elkarteko kideekin harremanetan jartzeko 676 62 39 90 edo 650 41 69 49 zenbakietara. Nahiago izanez gero posta elektronikoz ere egin daitezke eskaria honako helbide honetan: [ibarratik@hotmail.com](mailto:ibarratik@hotmail.com) helbidean.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Bizikleta estatikoa.** BH markako bizikleta estatikoa (automatic fitness computer). Abiadura, distantzia, denbora, kaloriak, tentsioak. 75 euro. 630 06 26 69.

**Etxebizitza.** Amezketan eraikuntza berriko etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea bainugela eta trastelekuarekin. Interesgarria. 637 80 60 44.

### LANA

**Zaintzailea.** Arratsaldez Tolosan haurrak zaintzeko pertsona bat behar da. 615 00 77 35.  
**Ileapaintzailea.** Ileapaintzailea behar da. 943 67 03 43

Gogoratu, postalak banaka ere erosi daitezkeela, hau da, ez dago zertan seiak batera erosi beharrik.

### Laguntza lau haizetara

Guztira lau proiektu ezberdinetara zabalduko da postalekin bildutako dirua. Ekuadorreko Santa Rosa herrian nekazaritza eskola hobetu eta erein ahal izateko, lursaila landuko da. Eritreako Hal-Hale herrian, berriz, elikadura proiektua bultzatuko da. Izan ere, bertako bizilagunek tuberkulosi arazo larriak dituzte eta elikadura arazoa konpontzeko elikagai beharra daukate. Aipatu, botikarik ez dutela behar, bertako gobernuak ematen dizkietelako. Esan bezala, ordea, elikadura osasuntsu bat eduki ahal izateko, mota ezberdinetako elikagaiak behar dituzte.

Bonbairen eta Hondurasko Suyapa herrian, ordea, etxebizitzaren arazoa da nagusi. Horregatik, postalaren salmentarekin lorturiko irabaziak bertako biztaleei etxebizitza duin bat egiteko bideratuko dira. Bonbairen, jende asko kalean bizi da plastiko eta lata artean eta estalperik gabe. Hauentzako txabolak egin nahi dituzte. Suyapan, berriz, blokeko etxeak egiteko erabiliko dira bilduriko diru-sarrerak. Orain arte 8 bloke egin ditu Ibarratik misio taldeak lau urtetan zehar eta horrela jarraituko dute.

Hala, jendea animatzen dute ekimenean parte hartzera.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Azkenaldian, Euskal Herriko Gazteak ez daude egoera onean, hustuketak, eraispenak... Orain, Villabonako Onddo Gaztearegi egokitu zaio Gaztearegi utzi behar izatea. Zer derituzue? Zergatik itxi nahi dituzte? Egoera onek ba al du irtenbiderik? Sartu gure webgunean eta eman ezazu zure iritzia, *eztabaida* atalean.



Ibarratik misio taldeak Indiara egindako bidaietan ateratako argazkiekin egindako bilduma; irudian Indiako haurrak ageri dira. IBARRATIK MISIO TALDEA



Margolan ezberdinez osaturiko collage koloretsua egin du Felix Urrestarazu ibartarrak. F. U.



Misio taldearekin kolaboratzen duten artistetako batek margoturiko postala. IBARRATIK MISIO TALDEA

XABIER AYERZA ▶ IBARRATIK MISIO TALDEKO KIDEA

## «Ahalik eta postal gehien saltzea da gure helburua»

Urte asko daramatza Xabier Ayerzak Ibarratik misio taldearekin lanean, beti ere Hirugarren Munduko herrialdeei laguntzeko helburuarekin. Une honetan, Eguberrietako postalekin dabil buru-belarri.

### Nondik sortu zen postalak egiteko ideia?

Gobernuz kanpoko erakundeak ikusi izan ditugu argazki proiektuekin lanean eta ideia ona iruditu zitzaigun Eguberrietako postalak egitea.

### Emaitzarekin gustura?

Gustura geratu gara. Jendeari gustatuko zaizkiola uste dugu, oso politak baitira. Ikusiko da nolako joaten den salmenta.

### Zein erronka duzue?

Helbururik nagusia ahalik eta postal gehien saltzea da, modu horretan ahalik eta diru gehien lortzeko. 6.000 postal egin ditugu eta denak saldu nahiko genituzke.

### Nola bidaltzen duzue laguntza?

Posta bitartez bidaltzea zaila izaten da, askotan ez baita iris-



HITZA

ten. Horregatik, proiektuak ditugun herrialdeetara doazenei ematen diegu hara eraman dezaten. Nahiago izaten dugu eskura ematea. ◀

IBARRA ▶

## Fernandez, Sail For Gold regatan garaile

Iker Martinezekin batera lortu du ibartarrak garaipen berria 49er mailan

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez ibartarrak bere kide Iker Martinezekin batera Ingalaterran jokaturako Sail For God regata irabazi zuen, 49er mailan. Azkeneko proba hasi baino lehen bigarren postuan bazeuden ere, azken saioan beharrezko abantaila lortu zuten garaipena erdiesteko.

Hurrengo regata abenduarren amaieran jokatuko dute, Palamoseko Christmas Race, hain zuzen. Denboraldi hasiera honetan lortutako emaitza errepikatzea espero dute bi kirolariek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroško dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

# Aldundiak neurriak hartuko ditu Elbarrenako errepidean

Zebrabide bat semaforoarekin jarriko du, Udalak egindako eskariaren arabera

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Elbarrena auzoa zeharkatzen duen errepideak trafiko zama handia jasotzen du egunero. Hori dela eta, auzoko oinezkoen bizi kalitatea hobetzeko Foru Aldundiari errepidean zenbait neurri hartzeko eskaera egin zuen Udalak eta lortu du akordioa gauzatzeko. «Ibilgailuen abiadura kontrolatzea eta zebrabide bat semaforoarekin jartzea da egiten dugun eskaria», azaldu dio Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Zizurkildarrei errepideak eragiten dien «arazoari» irtenbidea aurkitzeko ahalegina izan da Udalak egindakoa. Lazkanoren hitzetan, «beste herri-



Errepidearen espaloian obrak burutzen ari dira. I. GARCIA

ko industrialdera joateko eta bertatik etortzeko erabiltzen da errepide hori, baina oztopak gure herritarrentzat dira.

Horri irtenbide bat eman behar zitzaion eta akordioa lortu dugu, Foru Aldundiak baitauka errepidearen ardura».

Egun Udala zenbait lan burutzen ari da leku horretan. «Espaloia egokitzen ari gara. Adunako norantzakoan esku-bian gelditzen den aldean», dio Lazkanok. «Lan horiek baliatu ditugu gero semaforoa jartzeko behar diren instalakuntzak ezartzeko». Errepidean zebrabidea bat badago, baina ibilgailuek ez diote kasu handirik egiten seinale horri eta abiadura handian igarotzen direnez, oso puntu arriskutsua da oinezkoentzat.

Semaforoa eta zebrabidea jartzeaz gain, errepidean margotu egingo du Foru Aldundiak. «Horrekin ibilgailuak motelago joango dira eta eragiten duten zarata ere baxuagoa izango da», zehazten du Zizurkilgo alkateak.

VILLABONA ▶ KULTURA

## Txistua ardatz hartuta, hitzaldia eta kontzertua antolatu ditu Irrintzik bere elkartean biharkorako

Mikel Aranburuk emango du hitzaldia; Aitor Arozenak eta Garikoitz Mendizabalek, kontzertua

ERREDAKZIOA

Irrintzi elkarteak txistuaren inguruko hitzaldia eta kontzertua antolatu ditu biharko. Irrintzi elkartean bertan egingo da eta 20:00etan hasiko da. Antolatuzaileek nahi duen guztiarentzat sarrera irekia izango dela

azpimarratu dute. Elkarrekin aurtun 25 urte bete ditu eta horren harira ari dira ekitaldiak prestatzen. Mikel Aranburu folklorista eta Iruñako Udaleko txistulariak emango du hitzaldia. Gaztelaraz emango du, *Hiru zuloko flauta, txistua Euskal Herrian* izenburupean.

Hitzaldia eta gero, Aitor Arozenak eta Garikoitz Mendizabalek emango dute kontzertua. Arozena Euskal Herriko txapel-duna da eta Donostiako Udaleko Txistulari Taldeko zuzendariordea. Mendizabal, berriz, Euskal Herriko txapeldunordea da eta Bilboko Udaleko

Txistulari Taldeko zuzendaria. Ondorengo egitaraua eskainiko dute: *Dantza bilduma* (ezezaguna, J.I. Ansorenaren moldaketak), *Artzai kantak* (Eusebio Basurko), *Arizkun* (herrikoa), *Zaharra* (ezezaguna), eta *Hiru damatxo* (Sabin Bikandi eta J.I. Ansorena).

iragarki laburrak ▶



**Anoeta.** Harriko ebean 90 m2ko etxebizitza eraberritzeko, kanpora [begira](#).

- Belauntza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
- Belauntza.** Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m2ko lursailarekin.
- Berastegi.** Familia bakarreko etxea salgai, 3.500 m2ko lursailarekin.
- Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.
- Tolosa.** Zabalarreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komuna, trasteleku eta garaje itxia.
- Tolosa.** San Frantzisko, 75m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
- Tolosa.** Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugela. Berritua.

- Tolosa.** Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m2ko egongela, bainugela eta sukaldea. Ilogailua jabearen esku.
- Tolosa.** Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.
- Tolosa.** Benta Haundin, bi solairuko apartamentua. Eraberritzeko.
- Tolosa.** San Esteban, kanpora begirako 100m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
- Tolosa.** Aldaban, bi etxebizitzetan banaturiko baserria salgai, 110m2 solairu bakoitzeko. Berritzeko.

- Tolosa.** Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m2tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea. Eraikitze bidean.
- Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazugailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.
- Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.
- Ventosa (Errioxa).** Hiru solairuko familia bakarreko etxebizitza salgai urbanizazio pribatuan.
- Etxebizitzak alokairuan.** Alokairuan dauden etxebizitzak inguruko informazio gehiago jaso daiteke bulegora bertara joanda.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 18a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroen

19

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

902 82 02 01

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresua bihartik larunbatera. Hitzaldiak eta tailerrak izango dira Kultur Etxean, Leidorren eta Usabal kiroldegian zenbait adituren eskutik. Izen-emateko eta informazio gehiagorako, [www.kirolarte.net/congreso](http://www.kirolarte.net/congreso).

**Tolosa.** Zeligueta-Urroz mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Itzaga mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 5. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Merkataritza Federakuntzak antolatuta, ostiralera arte, eskaparatismo ikastaroa izango da Kultur Etxean. Eskolak, 14:15ean izango dira.

**Tolosa.** Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

**Tolosa.** Sukru Karakus-ek antolatu eta Fronton kafetegiak, Tolosako Udalak eta Artelekuk lagunduta, *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldiak bihartik azaroaren 5era arte: bihar, 20:00etatik 21:00etara, *Topaketa* erakusketaren inaugurazioa Leidor aretoan (azaroaren 12a bitarte izango da ikusgai). 21:30ean *Cruzando el puente, los sonidos de Estambul* filma zine-forumean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepasso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.  
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jende ugari bildu zen herenegun egindako inaugurazioan. E. EZEIZA



Edaritegi-jatetxeaz gain, haurrentzako txokoa ere badu. E. EZEIZA

# Kiroldegiko jatetxea zabalik

**TOLOSA ▶** Herenegun, arratsaldeko zazpietan ireki zituen ateak Usabalgo bigarren solairuan kokatuta dagoen Bidebide edaritegi-jatetxe berriak



Bidebide izenpean, Usabal kiroldegiko bigarren solairuan dago kokatuta. E. EZEIZA

**ERREDAKZIOA**

**K** irola egitera ez ezik, mokadutxo bat jatera ere joan daiteke orain Usabal kiroldegira. Izan ere, herenegun gauean inauguratu zuten Bidebide edaritegi-jatetxea. Kirola egin ondoren, berriro indarrak hartzeko «aukera paregabea» eskaintzen du edaritegi-jatetxeak.

Jende ugari hurbildu zen astelehenean, kiroldegiko goiko solairura. Edaritegiko barra, mota guztietako pintxoek bete zuten jabeek, eta oharkabean, plater guztiak hustuz joan ziren. Kirolariak, politikariak, haurrak, herritarrak... denen artean eman zioten ongietorria Bidebideri.

Jan eta edanaz gain, beste zerbitzu bat ere eskainiko du eraikin berriak, etxeko txikienei ere txoko bat egin nahi izan baitie. Hala, Txikipark Bidebide izenpean, hainbat jolasez hornitutako gelatxo bat ireki dute, helduak edaritegi-jatetxean dauden bitartean aspertu ez daitezten.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Maria Esnaola (Lizartza). Gaur 91 urte. Zorionak amona eta muzu handi bat familia guztiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Zorionak Olaia. Familiaren partetik

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...